

**Isabel
Barreiro
Quibén**

**María
Fernández
González**

**Paula Gómez
Cernadas**

**Begoña Suárez
Moreno**

Escola Oficial de Idiomas
de Pontevedra

isabelbq@gmail.com

Behaketa-taula: gogoetarako eta hobekuntzarako funtsezko tresna atzerriko hizkuntzen didaktika mistoan

Pontevedrako Hizkuntza Eskola Ofizialean behaketaz burututako hausnarketaren eta talde-lanaren emaitza aurkeztuko dute artikulu honetan bertako lau irakaslek. Hasitako prozesua gerora SBLENDID proiektuaren baitan burutu da. Horregatik, jardun biko ereduan ardatzu da azkenean gogoetarako eta hobekuntzara bideratutako kontrol-zerrenda gisa egindako ikastaroen behaketa-taula.

Gako-hitzak

behaketa, behaketa-taula, kontrol-zerrenda, jardun biko eredua, Sblendid

1. SARRERA

Behatzea zerbait arretaz aztertzea da; itxuraz, prozesu erraza. Hala ere, hain funtsezkoa den egintza batetik emaitza harrigarriak lor daitezke, behaketa baita teoria eta praktika lotzen dituen zubia.

2. ESPARRU TEORIKOA

Azterlan ugariaren xede izan dira praktika didaktikoari buruzko behaketa, analisia eta hausnarketa; hala, agerian utzi dute irakaslearen garapenaren garrantzia eta efikazia, bai eta ikas-irakas prozesuaren kalitatearen hobekuntza ere.

"Behaketa" terminoa honela definitu da: azter daitezkeen eta interpretazio bat jasotzen duten ikasgelako gertaerak aurreiritzirik gabe deskribatzea (Gebhard, 1999, 35. or.). Baileyk (2006, 93. or.), aldiz, irakaskuntza-gertaerak sistematikoki ikusteko prozesu gisa aipatzen du behaketa. Malderezen ustez (2003, 179. or.), informazioa lortzeko modu komun bat da, irakasleei lagun diezaiekeena hezkuntza-egoerei zentzua ematen, hezkuntza-praktiken efikazia zein hobekuntza-planaren saiakerak neurtzen.

Bestalde, Wanjryben arabera (1992, 1. or.), behaketa ikasteko hainbat alderdi dituen tresna bat da, eta behatzaileari esperientzia- eta prozesu-sorta bat eskaintzen dio, zeinak irakasle baten hazkunde profesionalaren lehengai izan baitaitezke.

Hala ere, lankideen arteko behaketa oso onuragarria izan daitekeen arren, irakasle batzuek oraindik ere esperientzia negatibotzat hartzen dute. Richardsek eta Farrellek (2005, 85. or.) diotenez, askotan uste da behaketaren xedea dela egindako lana epaitzea eta irakaslearen jardunean eragina izan dezakeen ebaluazio-mota bat egitea.

Halaber, behaketa intrusiboa eta kritikoa da irakasle batzuen iritziz. Bailey (2006, 87. or.) dioenez, bisitari bat notak hartzen edo audio-grabatzeko izateak antsietatea eta urduritasuna areagotzen ditu. Wallacen esanetan (1998, 104. or.), irakasleek behaketa ebaluazioarekin alderatzen dute, eta horregatik ez dute nahi izaten beste irakasle batzuk euren ikasgelan egoterik.

3. IRAKASKUNTZA-BEHAKETAREN ERREFERENTZIAZKO TESTUINGURUA PONTEVEDRAKO HEO-EAN

2017-2018 ikasturtearen hasieran lantalde bat sortzea erabaki zuen demokratikoki, Pontevedrako Hizkuntza Eskola Ofizialeko klaustroak Pontevedrako Prestakuntza eta Balia-bideen Zentroak koordinatua, berdinen arteko irakaskuntza-behaketaren bidez prestakuntza gogoetatsuen eredura hurbiltzeko. Orduan, ikas-irakas prozesua aztertu eta hobetu nahi zuen irakasle-talde bat sortu zen, ekintza-ikerketaren eremuan sartzen zen lan-ildo bati jarraituz. Ekimen hura zentroetako Etengabeko Prestakuntza Planaren lehentasuneko ildoetako bat izan da orain arte, lau ikasturtean.

"Behaketa" izeneko mintegiaren oinarria izan zen irakaslea eragile gogoetatsua dela (Bailey, 2006) eta, ondorioz, bere garapen profesionala autorregulatu eta pertsonalizatu behar duen pertsona autonomoa, irakaskuntza-metodo jakin bati atxiki beharrean.

Horrenbestez, irakasleen helburu nagusia ekintzan oinarritutako irakasteko gaitasuna eskuratzea da, honako helburu espezifiko hauek barnean hartuta:

- norberaren irakaskuntza-trebetasunez jabetzeko prozesua erraztea;
- berdinen artean lankidetzan aritzea, irakaskuntza-jarduna diagnostikatzeko eta objektibatzeke;
- prozesuan parte hartzen duten pertsonen euren helburuak eta hobekuntza-arloak formula ditzaten laguntzea.

Lantaldearen lehen produktua taula bat sortzea izan zen, gogoetarako tresna gisa; izan ere, behaketa eraginkorra izan dadin, berriazko izaera espezifiko eta sistematikoa izan behar du, informazioa biltzea ahalbidetuko duen aurretiazko plangintza batean oinarrituta.

Lehenengo taula horretan, ikas-irakas prozesuaren alderdi orokorrak jaso ziren, hiru kategorian nagusitan sailkatuta:

- komunikazioa eta hizkuntza;
- ikasgelako giroa;
- ikasgelaren kudeaketa.

Ondoren, taula espezifikoak egin ziren, aurreko urteko esperientziaren ondoren irakaskuntza-jardunaren alderdi jakin bat hobetu nahi zuten irakasleentzat. Guztira, 10 taula egin ziren, honako alderdi hauek behatzeko:

- IKTen integrazioa;
- Hizkuntza paraberbala;
- eskola planifikatzea;
- ikasle-irakasle harremana;
- trantsizioak;
- denboralizazioa;
- akatsaren tratamendua;

- inputaren eta outputaren arteko trantsizioa.

4. SBLENDID PROIEKTUA

Berdinen arteko behaketaren bidez baterako gogoeta-prozesu batean murgilduta geundela, 2020ko urrian gure eskolak bat egin zuen Erasmus+ KA104 SBLENDID proiektuarekin. Proiektuaren helburua zen Galiziako Hizkuntza Eskola Ofizialetan jardun biko irakaskuntzan antzeko interesak zituzten irakasle-taldeak sortzea, zentroetan prestakuntza-prozesu mailakatua egin zezaketen adituen sare bat sortuz (Fernández González et al., 2021).

Proiektu horren testuingurua ulertzeko, aipatu behar da Galiziako Hizkuntza Eskola Ofizialak, helduen irakaskuntza-zentro gisa, jardun biko irakaskuntza hasi zirela eskaintzen 2020-21 ikasturtean, aurreko ikasturtean HEOetako irakasleek osatutako lantalde batek egindako diseinu- eta prestaketa-prozesu trinko baten ondoren. Hurrengo urteetan eredu pixkanaka ezartzea zen helburua, zentroetan irakasten diren hizkuntza desberdinetan. Hain zuzen ere, autonomia-erkidegoan eredu berri hori ezarri izanak bultzatu zuen ikaskuntza-komunitate bat sortzea, Galiziako CAFIk (*Centro Autónomo de Formación e Innovación*) sustatuta, eta Galiziako HEOen arteko lankidetzarako eta elkarrizketarako gune bat ireki zuen.

Atal honetan, lehenik eta behin, *Blended Learning*-ari buruzko zehaztapen kontzeptualak egingo ditugu, eta, ondoren, behaketa-etaulak eta prozesu horren emaitzak aurkeztuko ditugu:

Ikaskuntza mistoaren edo jardun bikoaren (*Blended Learning*) ezaugarria da aurrez aurreko ikas-irakas prozesuak uztartzea edo nahastea ordenagailuaren bidez urrutitik garatzen diren beste batzuekin (Area eta Adell, 2009). Ikerketa ugariren arabera, jardun biko ereduak edo erdipresentzialak malgutasun handiagoa eman dezake ikaskuntzan, pertsona bakoitzak ikasteko dituen erritmo eta modu desberdinetara egokituz. Gainera, informazioa kudeatzeko, antolatze eta eskuratzeko autonomia handiagoa ematen die ikasleei. Hori beste eremu batzuetan orokortu daiteke, eta eguneroko egoeretan edo bitartean zehar sortzen zaizkien arazoan aurrean moldatzeko modua erraztu dezake.

Hala ere, dituen potentzialtasunak gorabehera, jardun bikoaren arrakasta ezin da lortu irakaskuntza-eredu tradizionalak errepikatuz. Pedagogia berria eraiki behar da, urrutiko prestakuntzarako plataformaren eta aurrezko aurreko eskolen arteko loturan oinarritua. Izan ere, bi uneak modu bereizian konbinatu behar dira, eta, aldi berean, elkarren artean erlazionatuta. Horretarako, koherentziaz integratutako ikaskuntza-sekuentziak antolatu behar dira, eta ikaskuntza garatzeko aukerarik onenak eskaini.

Beraz, esan genezake, premisa nagusi gisa, ikasgela birtuala ezin dela izan edukien gordailu hutsa, eta online lankidetzeta eta elkarreragina zein ezagutza eraikitzeke estrategia berriak sustatu behar direla.

5. IRAKASKUNTZA-JARDUNAREN BEHAKETA JARDUN BIKO EREDUAN

Lehen azaldu dugun bezala, SBLENDID proiektuan parte hartzearen ondorioz, irakaskuntzako behaketa-lana jardun biko ereduaren esparrura eraman zen, gure eskolan emandako jardun biko ikastaroen azterketaren bitartez. 2021-2022 ikasturterako ezarri berri ziren B2.1 eta C1.1 mailetako ingeles-ikastaroekin hasi zen, hain zuzen.

Behaketa ikerketa-prozesu gisa deskriba daitekeenez, lantaldeak honako fase hauek garatu zituen metodo kualitatibo hori aplikatzeko, zeinak arreta-zentro bihurtzen baitu eguneroko irakaskuntza-jardueran gertatzen dena:



Plangintza-fasean, hauek egin genituen: helburuak argi eta garbi zehaztu, eta adierazle koherente, egoki eta aplikagarriak jasoko zituen behaketa-tresna bat definitu. Gure abiapuntua aurrez aurreko irakaskuntzaren behaketa-taula izan zen, urte batzuk aurrerago egindakoa. Hari esker, behaketa-taula edo kontrol-zerrenda berri bat sortu genuen, ikaskuntzaren elementu zehatz bakoitzean modu objektibo eta egiaztagarrian zentratzeko eta behatutako irakasleei feedback espezifiko emateko.

Komeni da gogoratzea behatzen duten irakasleek ez dutela iritzirik ematen beren lankideen gaitasunei buruz, baizik eta iruzkin konstruktiboak egiten dituztela behatutako irakasleari laguntzeko bere praktika didaktikoak hobeto ulertzen eta hobetzen, bai aurrez aurreko klasean, bai espazio birtualean.

6. JARDUN BIKO EREDUA BEHATZEKO TAULA

Lanaren bigarren zatiri ekiteko, besteak beste, bi irizpide konbinatu aztertu behar genituen: espazioa eta denbora, hau da, ikasgelako lan sinkronoa eta plataforma birtual baten bidezko urrutiko ikaskuntza asinkronoa.

Gure lan- eta ikerketa-taldeak berriro ekin zion plangintza-, behaketa- eta gogoeta-faseen prozedurari, taula berria zehazteko.

Atalak hautatzeko irizpideei dagokienez, koherenteak, egokiak eta aplikagarriak izan behar zutela ezarri zen.

6.1 TAULAREN EGITURA

Kontuan har zitezkeen parametro guztiak aztertu ondoren, kontrol-zerrendan 8 atal bereiztea erabaki zen. Atal horiek irakaskuntza mistoan funtsezkoak diren lau arlo nagusiri dagozkie. Horrela, sistema sinergiko bat sortzen dute. Sistema horretan, hainbat elementu integratzen dira, eta ikas-irakas prozesuaren efikazia eta hobekuntza bilatzen laguntzen dute.

Arlo nagusiak	Gaitasunak
1.- Antolaketa	<i>Eskolako eremuak antolatzeari buruzko gaitasunak.</i> - Erabilitako ikaskuntza-eremua - Aurrez aurreko saioaren garapena
2- Irakaslea	<i>Irakaslearen profilari buruzko gaitasunak</i> - Irakaslearen rola
3- Ikaslea	<i>Ikaslearen profilari buruzko gaitasunak</i> - Ikaslearen rola - Aniztasunerako arreta
4- Didaktika	<i>Ikas-irakas prozesuari buruzko gaitasunak irakasleari lotuak</i> - Planifikatzea - Materialak - Erregulazioa eta autonomia sustatzea

6.1.1. Erabilitako ikaskuntza-eremua (6 item + oharrak)

Ikaskuntzarako esparru birtual gisa erabilitako plataformari egiten dio aipu; Galiziako zentro publikoen kasuan, Moodle plataforma da. Plataforma horrek elkarlana eta partaidetza bultzatzen ditu, eta irakasleei zein ikasleei zuzenduta dago; hala ere, erabiltzeko eta maneiatzeko oinarrizko prestakuntza izan behar da aldez aurretik.

Atal honetan, edukien aurkezpena, antolaketa eta sistematizazioa baloratzen dira, nabigagarritasun erraz eta intuitiboaz gain. Bestalde, ikasleek zalantzak hainbat kanalen bidez (tutoretzak, foroak, mezularitza) argitzeko aukera izan behar dute, une oro beren zeregin didaktikoetan lagunduta senti daitezen.

Ikaskuntzarako plataforma/esparru birtuala	Oharrak
Plataformaren izena:	
<input type="checkbox"/> Edukiak ordenatuta eta ondo osatuta aurkezten dira unitate bakoitzean.	
<input type="checkbox"/> Atalen hierarkia argia da eta antolaketa sistematikoa dago.	
<input type="checkbox"/> Ikasgela birtualak nabigazioa errazten duen interfaze intuitiboa du.	
<input type="checkbox"/> Zalantzak argitzeko gune bat dago.	
<input type="checkbox"/> Ikasleek banakako mezularitza-zerbitzu baterako sarbidea dute.	
<input type="checkbox"/> Komunikazio-kanalak daude, eta modu proaktiboan erabiltzen dituzte irakasleek eta ikasleek.	
Ohar orokorrak:	

6.1.2. Aurrez aurreko saioen garapena (6 item + oharrak)

Esan dugun bezala, jardun biko ereduak, ikas-irakas prozesua bi espazio eta denbora desberdinetan gauzatzen da, ikasgela birtuala eta ohikoa konbinatuta. Taularen aurreko atalean, denbora eta espazio bakarria aipatzen da plataforma birtuala aztertzean. Bigarren atal honetan, berriz, aurrez aurreko eskola nola egiten den baino ez da aztertzen. Aurrez aurreko eskolan, ikasleek eta irakasleak denbora eta espazioa partekatzen dituzte, ingurune konbentzional batean egingo luketen bezala.

Hemen, zentroko aurrez aurreko eskola- saio baten azterketan kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenak xehatuko ditugu, barnean direla proposatutako edukiei eta helburuei buruzko adierazleak eta, baita ere, lan sinkronoa eta plataformako lan asinkronoa lotzen dituzten itemak, bi munduak elkarren ondoan jartzea ezinbestekoa baita eredu honetan.

Saioaren garapena	Oharrak
<input type="checkbox"/> Saioaren helburua azaltzen da edo ikasleek dagoeneko ezagutzen dute.	
<input type="checkbox"/> Aurreko saioko edukiakin lotzen da.	
<input type="checkbox"/> Jarduerak egokiak dira eta ikasleengan ardaztuak dira.	
<input type="checkbox"/> Ondorioak/sintesia egiten dira saioaren amaieran.	
<input type="checkbox"/> Indartzeko edo osatzeko materialak gomendatzen dira.	
<input type="checkbox"/> Hurrengo saio birtual/presentzialaren aurretik modu autonomoan egin beharreko jarduerak aipatzen dira.	
Ohar orokorrak:	

6.1.3. Irakaslearen rola (6 item + oharrak)

Irakaskuntza-lanbidea etengabe eraldatzen ari den testuinguru batean garatzen da, pandemiarekin gertatu zen bezala, batzuetan ezusteko aldaketak dituen testuinguru batean, eta aldaketa horiek irakasleen malgutasun, moldagarritasun eta pazientzia handia eskatzen dute erantzun egokiak eman ahal izateko eta gizarte- eta hezkuntza-egoera berrietara egokitu ahal izateko. Esan genezake irakasleen profila "malgua eta polifazetikoa" dela.

Gaur egun, irakasleek erronka ugari dituzte lortzeko; esperientziak eta egoerak aztertzeko eta ulertzeko gai izateko eskatzen zaie, eta, ondoren, praktikan zer ekintza jarri erabakitzeko. Irakaslearen gaitasunak, gaur egun, zenbatezinak dira.

Sei itemetan soilik laburbildu dugu gaitasun horien ikuspegia. Gure kasu berezian, adierazle espezifikotan zehazten dira, jardun biko irakaskuntzan beharrezkoa den portarari eta praktikari dagokienez; hau da, irakaslearentzat benetan beharrezkoak diren gaitasunak eta ekintzak dituzten itemak hautatu dira, bere irakaskuntza-jarduera sinkrono eta asinkronoaren jardunean eta gogoetan. Hor, ikasleak zuzentzen, ebatzen, laguntzen, ebaluatzen eta motibatzen ditu, eta, era berean, irakasleak proposatutako estrategiak erabiltzera bultzatzen ditu, haien ikaskuntza-trebetasunak, trebetasun sozialak eta emozionalak kudeatzeko, bai aurrez aurreko eskolan, bai ingurune birtualean.

Irakaslearen rola	Oharrak
<input type="checkbox"/> Ikasgela birtualean parte hartzea eta ikaskuntza-komunitate bat eraikitzea bultzatzen du.	
<input type="checkbox"/> Ikasleak laguntzen ditu eta feedbacka etengabe eskaintzen die.	
<input type="checkbox"/> Lantzen dituen edukiak menderatzen dituela erakusten du.	
<input type="checkbox"/> Trebetasun sozialak eta emozionalak garatzeko estrategiak erabiltzen ditu.	
<input type="checkbox"/> Ikasleei zailtasunak gainditzeko laguntzen die.	
<input type="checkbox"/> Autoebaluaziorako tresnak erabiltzen dira; errubrikak, ikaskuntza-ituak edo antzekoak.	
Ohar orokorrak:	

6.1.4. Ikaslearen rola (4 item + oharrak)

Jardun biko irakaskuntzan parte hartzen duten ikasleek rol berezia eta oso berezkoa betetzen dute eredu berri horretan. Ingurune birtual batean, ikasleek beren premiak identifikatu behar dituzte, eta beren ikasprozesuaren arduradun izan behar dute. Horrela, antolatzeko eta beren jardunari buruzko erabakiak hartzeko duten gaitasuna baliatu behar dute. Eskuratutako ezagutzak kudeatu, erregulatu eta transferitzeko duten eraginkortasunak zehaztuko du, neurri handi batean, kurtso baten helburuen lorpen-maila.

Horregatik, taularen atal honetako lau adierazleek parte-hartzaileen gaitasun proaktiboen erreparatzen diete, funtsezko alderdiak aztertzeko helburu nagusiarekin, hala nola autonomia, analisi-gaitasuna, autorregulazioa eta motibazioa.

Ikaslearen rola	Oharrak
<input type="checkbox"/> Bere ikaskuntza propioa eraikitzen du: prozesuen emaitzak behatzen, deskribatzen, ondorioztatzen, esperimentatzen, ikertzen, aztertzen, laburbiltzen edo azaltzen ditu.	
<input type="checkbox"/> Aurkeztutako egoeren aurrean proaktiboa da ikasgela birtualean nahiz aurreko eskolan.	
<input type="checkbox"/> Proposatutako jardueretan ikasitakoa transferitzen du.	
<input type="checkbox"/> Jarrera inklusiboa, lankidetzakoa eta errespetuzkoa du.	
Ohar orokorrak:	

6.1.5. Aniztasunerako arreta (3 item + oharrak)

Irakaskuntza-eredua edozein dela ere, hizkuntza-kurtso batek profil asko barne hartzen ditu. Horregatik, ohiko irakaskuntzan bezala, jardun biko ereduak ere ikasleen ikaskuntza-eritmo eta -estilo desberdinei erantzungo dieten ekintza pedagogikoak behar ditu.

Taularen atal hau osatzen duten adierazleen helburua da ikasgelako aniztasunari buruzko jarduketara horiek aztertzea. Zalantzarik gabe, hezkuntza-premiak identifikatzea funtsezkoa da parte-hartzaileen gaitasunen araberrako arreta pertsonalizatua erraztuko duten hobekuntzak ezartzeko.

Aniztasunerako arreta	Oharrak
<input type="checkbox"/> Jarduerak ikasleen zailtasunen edo premien arabera egokitzen dira.	
<input type="checkbox"/> Ikasleen gaitasun digitalaren mailak kontuan hartzen dira.	
<input type="checkbox"/> "Aldamiatze" jarduerak –behin-behineko egiturak eskaintzeko jarduerak– sartzen dira, helburu komunak lortzen laguntzeko.	
Ohar orokorrak:	

6.1.6. Plangintza (3 item + oharrak)

Plangintza didaktikoak irakaskuntza-proposamena orientatzen eta oinarritzen du. Ikas-irakas prozesuan eman beharreko urratsak eta elementuak aurreratzen dituen edozein jarduera pedagogikori datxekion ekintza da. Jardun biko kurtso bat planifikatzean, irakasleak edukiak eta jarduerak antolatzen ditu, ikaskuntza-espazioen dualtasuna ahaztu gabe. Lan-dinamika ezarri ondoren, hura ibilbide-orrietara edo eskolako egunerokoetara transferitzeak, gida gisa, autorregulaziorako beharrezko tresnak ematen dizkie ikasleei.

Atal honetako hiru adierazleek jardun biko ikastaro baten denboraren banaketa aztertzen dute, zehazteko haren antolaketa efektiboa izan den edo proposatutako jarduerak

eta zereginak egokiak izan diren. Azterketa horren emaitzak aukera emango du proposatutako denboralizazioa birdiseinatzeko, hasierako helburuen betetze-maila zehazteko eta jarduerak eta zereginak birplanifikatzeko.

Plangintza	Oharrak
<input type="checkbox"/> Jarduerak entregatzeko epeak ondo mugatuta daude.	
<input type="checkbox"/> Jardueretarako kalkulaturako denbora nahikoa da.	
<input type="checkbox"/> Ikasleei ikaskuntzaren jarraipena egiteko tresna bat eskaintzen zaie (ibilbide-orria, ikasgelako egunerokoa edo portfolioa).	
Ohar orokorrak:	

6.1.7. Materialak (5 item + oharrak)

Jardun biko ikastaro bat osatzen duten baliabideak eta materialak askotarikoak dira. Informazioa modu testualean, multimedean, grafikoan edo ikus-entzunezkoan aurkez daiteke, eta hierarkia logiko eta zehatzaren arabera antolatu ohi da. Helburu nagusia da ikasleak ez nahastea ulertzeko zailak diren edo nekez barnera daitezkeen kontzeptuekin. Gainera, informazio-aniztasunak ikaskuntza-diseinu unibertsal sustatzen du, adierazteko hainbat bitartekoren bidez.

Atal honetako bost adierazleek, jardun biko ikastaro batek duen informazioari buruzkoek, haren moldaerraztasuna, eskuragarritasuna eta egokitasuna aztertzen dituzte, eskola birtual batean aurkeztu beharreko edukiaren ezaugarri garrantzitsuenak laburbilduta, eta, aldi berean, alderdi garrantzitsu bat gehitzen dute: jarraibideen zehaztasuna.

Materialak eta baliabideak	Oharrak
<input type="checkbox"/> Ordenatuta eta sekuentziatuta daude.	
<input type="checkbox"/> Jarraibide argi eta zehatzak dituzte.	
<input type="checkbox"/> Ikasleek modu autonomoan aurrera egitea sustatzen dute.	
<input type="checkbox"/> Egokiak dira: proposatutako jarduerekin konektatuta daude.	
<input type="checkbox"/> Askotarikoak dira: IKTak baliabide tradizionalagoekin txandakatzen eta osatzen dira.	
Ohar orokorrak:	

6.1.8. Autorregulazioa eta autonomia sustatzea (5 item + oharrak)

Autonomia hitza honela definitzen da Euskaltzaindiaren Hiztegian bigarren adieran: "norbaitek edo zerbaitek bere kabuz aritzeko duen askatasuna edo askatasun maila" Esanahi horrekin, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruz 2006ko abenduaren 18an emandako gomendioetan ere jasotzen da funtsezko alderdi gisa, "ikasten ikastea" izenburupean.

Jardun biko irakaskuntzan, "ikasten ikasteko" konpetentzia horrek garrantzi handiagoa hartzen du; izan ere, ikaskuntzaren beraren antolaketa eta denboraren eta informazioaren kudeaketa eraginkorra eredu horri datxezkie.

Ikuspegi pedagogikotik, ikasestrategiak garatuz lortzen da autonomia, ikasleek beren kognizioa monitorizatu eta erregulatzeko prozesuan. Taularen atal honetako bost adierazleek ikastaroko tresnak optimizatzeko duten gaitasuna aztertzen dute, autoebaluazio- eta koebaluazio-jardueri emandako erantzuna barnean dela, baita euren ikaskuntza

ibilbide-orrien, portfolioen edo eskolako egunerokoen bidez autorregulatzeko duten gaitasuna ere.

Autorregulazioa eta autonomia sustatzea	Oharrak
<input type="checkbox"/> Ikasleek erabilgarri dauden tresnak baliatzen dituzte (eskolako egunerokoa/ibilbide-orria) beren ikaskuntza autorregulatzeko.	
<input type="checkbox"/> Aurrerapena ebaluatzeko jarduerak sartzen dira: gogobetetze-inkestak edo autoebaluazio-galdetegiak.	
<input type="checkbox"/> Autorregulazioan laguntzen duten tresnak erabiltzea proposatzen da (adibidez, portfolioa).	
<input type="checkbox"/> Ikaskuntza-tresnak erabiltzeari buruzko bideo-tutorialak eskaintzen dira ikasgela birtualean, ikasleek modu autonomoan aurrera egin ahal izan dezaten.	
<input type="checkbox"/> Autoebaluaziorako tresnak erabiltzen dira: errubrikak, ikaskuntza-ituak edo antzekoak.	
Ohar orokorrak:	

7. ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

Kontrol-zerrenda hau ahalbidetu duten faseek eta jardun biko ereduaren eremuan ikas-irakas testuingurua hobetzeko alderdirik esanguratsuenak nabarmendu ahal izateak aukera eman digute gogoetarako lankidetzeta-lana praxi profesional on gisa baloratzeko eta berresteko, zeinak bere gain hartzen baitu gaur egungo hezkuntzaren berrikuntzarekin bat datorren taldeko prestakuntza-balioa.

Ikerketa-ekintzaren bidez ere, gure kasuan behaketa-taulak erabiliz, teoriaren eta praktikaren arteko distantzia murriztu dugu, eta irakasleen partaidetza- eta lankidetzeta-komunitate baten arteko elkarrizketa eraikitzailea sustatu da, beren jakintza praktikoa baliatzen baitute beren lanbidea hobetzeko eta garai berrietara egokituz aurrera egiteko.

Jardun biko irakaskuntzarako behaketa-taula interesa izan dezakeenaren eskura dago gaztelaniaz pdf formatuan, Sblendid proiektuaren webgunean: https://www.edu.xunta.gal/centros/cafi/aulavirtual/pluginfile.php/181325/mod_resource/content/2/Tabla_observacion_ESPANOL.pdf

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Bibliografia eta erreferentziak

- Area, M, eta Adell, J. (2009). E-Learning: Enseñar y aprender en espacios virtuales. In J. De Pablos (koord.), *Tecnología Educativa. La formación del profesorado en la era de Internet* (391-424. or.). Aljibe.
- Bailey, K.d. (2006), *Metodi della ricerca sociale. III: I metodi qualitativi*, il Mulino.
- Cramerotti, S. (2019). La peer review tra docenti come strumento di sviluppo professionale. *L'integrazione scolastica e sociale*, 18 (4), 350-355.
<https://rivistedigitali.erickson.it/integrazione-scolastica-sociale/it/visualizza/pdf/1840>
- Fernández González, M., Pastoriza, D. eta Eizaguirre Santillán, A. (2021). Proyecto SBLENDID. Hacia una comunidad de aprendizaje en el marco de la modalidad semipresencial. In M. C. Romero García & O. Buzón-García (Ed.), *Innovación e investigación docente en educación: Experiencias prácticas* (702-720. or.). Dykinson
- Gebhard, J. G. (1999). Seeing teaching differently through observation. In J. G. Gebhard J.G. eta R. Oprandy. (ed.), *Language Teaching Awareness : a guide to exploring beliefs and practices* (35-58. or.). C.ambridge University Press.
- Malderez, A. (2003). Observation. *ELT Journal*, 57(2), 179-181. <https://doi.org/10.1093/elt/57.2.179>
- Richards, J. eta Farrell, T. (2005). *Professional development for language teachers: Strategies for teacher learning*. Cambridge University Press.
- Wanryb, R. (1992). *Classroom Observation Tasks*. Cambridge University Press.
- Wallace, M. J. (1998). *Action Research for Language Teachers*. Cambridge University Press.